## Eztanda Harana



**Ormaiztegi**ko herrian hasiko dugu eguna: bertan, Zumalakarregiren museo historikoa, trenzubia, San Andres Elizaren portada erromanikoa eta bere bataiarria ikusi ahal izango ditugu. **Gabiria**ra igo aurretik eta Ormaiztegitik hurbil, Alegiko auzoan kokatzen den pikotara hurbilduko gara; Gabiriara iritsitakoan, Eliza ezagutu eta gero, **Lierni**ra **(Mutiloa)** joango gara, hain ezaguna den bertako ermita ikustera. Mutiloako herria ezagutu ondoren, Seguratik Ormaiztegira itzuliko gara.

IBILBIDEA 5